



TAXI MAHAIA / MESA DE TAXI

2021eko urtarrilaren 19a

GAI-ZERREDA:

1. Agurra.
2. Hartzeke dauden akordioak ikuskatzea; Enpresen Kontsulta Foroa: lehentasuneko proiektuen zerrenda 2020.
3. Egungo sektorearen egoera aztertzea.
4. Hurrengo urratsak.
5. Galderak eta iradokizunak.

PARTAIDEAK: (% 100)

DEITUTAKOAK		PARTAIDEAK	EZ-EGOTEAK	
			Arrazoiak emanda	Arrazoiak eman gabe
Taxiaren sektorea	Javier Eguzkitza; Getxo Taxi Tourren izenean	X		
	Serafin Ferreras; Bizkai Taxi elkartearen izenean	X		
Getxoko Udala - Ekonomia Sust. Arloa	Mirene Zabalgozkoa	X		
	Sonia Urdiain	X		

EDUKIAK:

1. Bertaratutakoei agurtu zaie.
2. Hartzeke dauden akordioak ikuskatu dira:
 - 2.1.- Taxietan publizitatea ipintzeko aukera aztertzea. Bere egunean arloari kontsultatu zitzaion eta hasiera batean ez dago inolako lege baldintzarik taxietan publizitatea jartzeko.



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Dagoeneko jakinarazitakoari jarraiki, proiektu bat beharko litzateke, publizitatea nola gauzatuko litzatekeen azaltzeko: espazioak, formatuak, tarifak... Nolanahi ere, Udalak baimendu beharko du.

Proiektua landu, definitu eta inplementatze aldera, berriz ere sektoreari gure aholkularitza zerbitzua kontuan hartzeko aukera eman zaio.

Zuzendaritza batzordeari helarazi eta gurekin harremanetan jarriko dira.

2.2.- Erreserben aplikazioaren bertsio berrian <publizitatearen salmenta> ipintzeko aukera aztertzea. Nahiz eta sektoreari interesgarria iruditzen zaion, oraingoz aplikazioan ez dago aukerarik.

Apparen barruan negozio-lerro hori garatzeko aukera dagoen jakite aldera, hornitzaileek baliozta dezaten proposatu zaie.

2.3.- Sektoreak Getxoberrin egin dituen ekimenak ikusgarriago ipintzea.

Bizkai Taxi Appari buruzko berria argitaratu zen 1.617 Getxoberrin https://www.getxo.eus/DocsPublic/revistas/castellano/getxoberri/GETXOBERRI_1617_CAS.pdf. Era berean, Getxoko Udaleko sare sozialetan hedatu da eta oraindik hala dirau.

3.- Sektorearen egoera eta hobekuntza proposamenak eta/edo proiektuak.

3.1.- Azaldutakoaren arabera egoera oso zaila da. Ez da zerbitzurik eskatzen eta ematen direnak oso ibilbide motzak dira (osasun-zentroetara eramatea, nagusiki). Aste bat bai eta bestea ez lanean jarraitzen dute. Diru-bilketa gutxi gorabehera % 70 jaitzi zaie.

3.2.- Gaueko txandak ia ibilbiderik ez duenez, bezeroari arreta emateko zerbitzuan (telefonogunean) ABEE planteatu dute.

3.3.- App-an erabiltzaileak gehitu dira. Publizitatea saltzeko proposamenari lotuta, adierazlearen bilakaera ezagutzea interesgarria litzateke.

3.4.- Kontrataziorako laguntzak; elkarteak lor ditzakeen alderatzea.

3.5.- Taxien ontzidia berritzeko, ibilgailu hibridoan (egun 2 besterik ez) eta/edo elektrikoan (0) kopurua gehitzeko eta geltokietan karga-puntuak ipintzeko balizko laguntzak (2022tik aurrera) aztertzea.

3.6.- Data zehatzik gabe, webgunea aldatzea aurrez ikusia dute, app-aren edukiekin lerrokatu nahi baitute. Aholkularitza eta/edo lor ditzaketen laguntza-lerroak aztertzea.



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

4.- Hurrengo deialdien berri eman da eta lehendakariari jakinaraziko dizkiote:

2021/02/02 Enpresen Kontsulta Foroa

2021/02/15 Kontrasteko Mahai Politikoa

AKORDIOAK (TAXI MAHAIA, 2021/01/19):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Aktaren zirriborroa bidaltzea	Udal teknikariak	2021/1/25 baino lehen
2. Aholkularitza-zerbitzuaren bidez taxietan publizitatea jartzeko proiektua garatzea.	Bizkai Taxi	Bileratik aurrera
3. Apparen erabiltzaile-hazkuntzari buruzko datuak aztertzea.	Bizkai Taxi	Bileratik aurrera
4. Erreserben aplikazioan publizitatearen funtzionaltasuna garatzeko aukera lantzea.	BizkaiaTaxi	Bileratik aurrera
5. Kontratatorako laguntzak lor ditzaketen baieztatzea.	Udal teknikariak	2021/1/25 baino lehen
6. Taxien ontzidia berritzeko, ibilgailu hibridoen (egun 2 besterik ez) eta/edo elektrikoek (0) kopurua gehitzeko eta geltokietan karga-puntuak ipintzeko balizko laguntzak (2022tik aurrera) aztertzea.	Udal teknikariak	Bileratik aurrera
7. Berriazko aholkularitza eta/edo lor ditzaketen laguntza-lerroak zuzendaritza batzordeari eskaintzea.	Udal teknikariak	Bileratik aurrera